

**ADMINISTRAZIO ETA EKONOMIA KLAUSULEI ETA AGINDU TEKNIKOEI BURUZKO PLEGUA, BISITA GEOTURISTIKO GIDATUEN BISITA ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESKAINTZEKO EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAN.**

**I.-KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. ARAUBIDE JURIDIKOA, ARAUDI APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratazio prozesua hala araupetuko da:

1º.-Administrazio Klausula Partikularrei buruzko Plegu hau eta Kanpoko Agindu Teknikoei buruzko Pleguaren bidez.

2º.-“EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA KUDEATZEKO ELKARTEAREN (GEOGARAPEN) Kontratazioko Barne Araubideen bidez”.

3º.-Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretutik ondorioztatzen diren kontratazio arauen bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bategina onetsi zuena, baldin eta azken lege honek indargabetu ez badu. Baita herri administrazioetako Kontratuei buruzko Legeko Araudi Orokorren bidez ere, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onetsita. Nolanahi ere, eta bi pleguei dagokienez, aipatutako Araudiaren 68.3. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

4º.-Horrez gain, administrazio zuzenbidezko arau orokorrak hartuko dira oinarri eta, besterik egon ezean, bakarrik zuzenbide pribatukoak.

Lizitatuak edo adjudikaziodunak kontratuari aplikatu beharreko araudia ez ezagutzeak ez du esan nahi hura oinarri hartzeaz eta nahita nahiez bete behar izateaz salbuetsita dagoela.

Adjudikazioduna hautatzeko prozesuan edo kontratuaren indarraldian edo exekuzioan sor daitezkeen desadostasunak ezagutzeko jurisdikzio eskuduna zibila izango da beti.

Kontratuaren aplikazioari edo interpretazioari, haren exekuzioari, aldaketari, betetzeari eta desegiteari dagokionez sor daitezkeen zalantzak GEOGARAPEN elkartearen bidez argituko dira, eta horrek hartutako akordioak eta erabakiak berehala burutuko dira.

## 2. DEIALDIA EGITEN DUEN ERAKUNDEA. KONTRATAZIO ORGANOA.

Erakunde kontratatzailea GEOGARAPEN da, EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO ELKARTEA, aurrerantzean GEOGARAPEN. Internetko helbidea: [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com). Helbide honetan dago elkartearen kontratazio perfila.

Kontratazio organoa GEOGARAPENeko ahalduna izango da.

## 3. KONTRATUAREN XEDEA.

KONTRATU honen xedea Euskal Kostaldeko Geoparkean bisita geoturistiko gidatuen zerbitzua eskaintzea da, klausula ekonomiko eta administatibo eta preskripzio teknikoetan jasotzen dena jarraituz.

Kontratuaren xede diren bisita geoturistiko gidatuen zerbitzuak honako aktibitateak barne hartu beharko ditu:

1	Zumaia-Deba-Zumaia itsas irteera
2	Zumaia-Deba-Zumaia bigarren itsasontzia
3	Algorri interpretazio zentroa eta oinezko bisita Algorri puntara
4	Bisita geologikoa eta itsas irteera Zumaian
5	Bisita geologikoa itsasontzi gabe Zumaian
6	Itsas irteera Zumaian bisita geologikorik gabe
7	Flysch-aren ibilibidea
8	Flysch beltza: Nautilus eta itsas irteera Saturraranera
9	Mutriku eta Arrantza ( Bentalekua eta itsas irteera)
10	Olatzeko Karsta
11	Artzai Txikiak Lasturren
12	Biodibertsitatea Marearteko Zabalgunean.

Zerbitzuak II gehigarrian bildutako espezifikazioen arabera egin beharko dira.

## 4. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraunaldia kontratua formalizatzen den egunaren biharamunetik 2014ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, eta beste urte betez luzatu ahal izango da, gehienez 2015ko abenduaren 31 arte.

## 5. KONTRATUAREN PREZIOA

KONTRATUKO zerbitzuen prezioak eskaintzaileak zehaztuko ditu bere proposamenean, unitate-prezio sistema kontuan hartuta eta egiten den jarduera bakoitzaren arabera.

Horretarako, lizitazioaren unitate-prezio maximoak (BEZ kenduta), aurreikusten diren jarduerentzat honako hauek dira:

	<b>BISITA MOTA</b>	<b>Bisita bakarra</b>	<b>Beste bisita bati lotuta</b>
1	Zumaia-Deba-Zumaia itsas irteera	500,00 €	
2	Zumaia-Deba-Zumaia bigarren itsasontzia		400,00 €
3	Algorri interpretazio zentroa eta oinezko bisita Algorri puntara		200,00 €
4	Bisita geologikoa eta itsas irteera Zumaian	358,00 €	
5	Bisita geologikoa itsasontzi gabe Zumaian		200,00 €
6	Itsas irteera Zumaian bisita geologikorik gabe		260,00 €
7	Flysch-aren ibilibidea	700,00 €	500,00 €
8	Flysch beltza: Nautilus eta itsas irteera Saturraranera	600,00 €	400,00 €
9	Mutriku eta Arrantza ( Bentalekua eta itsas irteera)	600,00 €	400,00 €
10	Olatzeko Karsta	300,00 €	
11	Artzai Txikiak Lasturren	300,00 €	
12	Biodibertsitatea Marearteko Zabalgunean.	180,00 €	

**Bisita egiten ez den kasuetan**, esleipendunari gehienez honako kantitateak ordainduko zaizkio:

- Itsasontziarekin egindako jarduerak: 70 €
- Itsasontzirik gabe egindako jarduerak: 50 €

Aurreko egunean 17:00ak aurretik bertan behera utzitako bisita gidatua, klimatologia arrazoiak medio edota kontratuari egotzi ezin zaizkion arrazoiak izanik, ez dute kosturik izango geogarapentzat.

Geogarapen Elkarteak bisitako ondorengo pertsona minimoak betetzen badira bisita gidatuen bisita gidatuak bermatuko ditu:

	<b>BISITA MOTA</b>	<b>Min. pax</b>	<b>Max. pax</b>
1	Zumaia-Deba-Zumaia itsas irteera	20	40
2	Zumaia-Deba-Zumaia bigarren itsasontzia	20	40
3	Algorri interpretazio zentroa eta oinezko bisita Algorri puntara		
4	Bisita geologikoa eta itsas irteera Zumaian	12	25
5	Bisita geologikoa itsasontzi gabe Zumaian		
6	Itsas irteera Zumaian bisita geologikorik gabe	20	40
7	Flysch-aren ibilibidea	20	40
8	Flysch beltza: Nautilus eta itsas irteera Saturranera	20	40
9	Mutriku eta Arrantza ( Bentalekua eta itsas irteera)	20	40
10	Olatzeko Karsta	12	25
11	Artzai Txikiak Lasturren	12	25
12	Biodibertsitatea Marearteko Zabalgunean.	5	25

Egindako bisiten eta egin gabeko bisiten prezioak murriztu ditzakete lizitatzailleek.

Honako kontzeptu hauek eskainitako unitate-prezioen barnean daudela ulertuko da: zerbitzua emateak berezkoa duen edozein kontzeptu eta zerbitzua emateko erabilitako langileei dagozkien gastu guztiak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporraldiak eta aparteko ordainsariak, ordezkapenak bajagatik edo gaixotasunagatik, banakako istripu aseguruak, etab.), eskaintzailearen teknikoen joan-etorrien kostua, zerga guztiak (BEZ ezik), aseguruak, lizentziak, baimenak, hondakinen kudeaketa eta gastu orokorrak.

Halaber, eskaintzaileek eskainitako unitate-prezioen barnean egongo dira: edozein baliabide, erremintak, ibilgailuak, ekipoak, tresnak, gailu informatikoak eta adjudikaziodun enpresak zerbitzua emateko erabili behar dituen tresnak.

Eskaintzaileek aparteko kontusail bezala adierazi beharko dute GEOGARAPENek jasan behar duen BEZa.

Kontratuaren guztizko balio estimatua, SPKLTBren 87. artikuluan ezarritakoari dagozkion ondoretarako, BERREHUN ETA BOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEHI EURO (205.280,00 €) eurokoa da, BEZ kenduta, kontratuaren 2 urtetarako.

Balio estimatu hori SPKLTBaren 88.5.a) artikuluan ezartzen denaren arabera kalkulatu da; hau da, iraupen berdinarekin esleitutako kontratu berdintsuen balio erreala kontuan hartuta.

## **6. ORDAINTZEKO MODUA**

GEOGARAPENi emandako zerbitzuen prezioa benetan emandako zerbitzuei eskainitako unitate-prezioak aplikatuz ondorioztatzen dena izango da, gehi, hala balegokio, egin gabeko bisiten kostua.

Geoparkeko bisita geoturistiko gidatuen zerbitzuaren prezioa hileroko ordainduko da; aldez aurretik, adjudikaziodunak dagokion hileroko faktura zehatza aurkeztu beharko du, hilabete horretan benetan gauzatutako jardueren zerrenda barne, eta GEOGARAPENek bere onspena eman beharko dio fakturari. Hilabeteko faktura hurrengo hileko lehen zazpi egun naturalen barruan jaulki beharko da.

GEOGARAPENek zerbitzuen prezioa hileroko ordainduko dio adjudikaziodunari, 60 eguneko epean fakturaren jaulkipen datatik zenbatzen hasita.

## **7. FINANTZIAZIOA**

Kontratu hau GEGARAPENek finantziatuko du %100ean.

## **8. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Eskainitako prezio unitarioak urtero errebisatuko dira, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskal Erkidego Autonomoko Kontsumo Prezioen Indizearen aldaketen arabera edota ordezkatzeko duen indizearen arabera.

Lehenengo azterketako kontratistak eskainitako prezio unitarioak oinarri hartuko dira eta hurrengo urteetarako aurreko errebisio edo azterketaren prezioak oinarri hartuko dira.

## **9. KONTRATISTAREN LAN-OBLIGAZIOAK**

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Langile guztiak eskusiboki kontratistaren mende egongo dira, eta bereak izango dira enpresaburuaren izaeraren berezko eskubideak eta betebeharrak, eta GEOGARAPENi ezingo zaio inolako erreklamaziorik egin lan harreman horien eta gainerako betebeharren ondorioz.

## **10. KONTRATUAREN EJEKUZIOAN KONTRATISTAK HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAREN ERANTZUNKIZUNA**

Esleipendunaren ardura da kontratuan jasotako aktibitatearen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea.

Esleipenduna izango da erantzule bakarra prestazioa ematen lan egiten duten langileen – propioen edo egin daitezkeen azpikontratazioetakoen– edozein istripu edo erreklamazioren aurrean (judiziala zein estrajudiziala izan), eta GEOGARAPEN-ek ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen duen inolako lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzkoa barne), Gizarte Segurantzakorik edo fiskalik. Halaber, kontratistak bere gain hartuko ditu eskusiboki prestazioak gauzateagatik gerta daitezkeen istripuen ondoriozko erantzukizunak.

Kontratistak, nolanahi ere, lanak burutu ahal izateko, beharrezko ekipoa edo laguntza-baliabideak ekarri beharko ditu nahita nahiez, aipatutako lanak behar bezala exekutatzeko, eta baita beharrezko langileak nahita nahiez kontratatu behar ere, bere obligazioei aurre egin ahal izateko. Langileei dagokienez, lan eta gizarte segurtasun arloko indarreko xedapenak bete beharko ditu.

## **11. KONTRATUA ALDATZEA**

Kontratua interes publikoari dagozkion arrazoiengatik, behar bezala justifikatutako ezusteko edota behar berriei erantzuteko aldatu ahal izango da. Aldaketa hauek ezingo dute kontratuaren funtsezko baldintzei eragin.

## **12. PRESTAZIOAREN HARRERA ETA BERMEALDIA**

Kontratua beteta egongo da kontratistak, kontratuaren baldintza guztiak oinarri hartuta, prestazioa erabat bete duenean eta GEOGARAPENek oniritzia ematen duenean.

GEOGARAPENek erabakiko du kontratistak egindako prestazioa ezarritako aginduen arabera bete ote den, eta, hala dagokionean, kontratatutako prestazioak bete eta prestazioaren harreran ikusitako gabeziak zuzentzeko eskatuko du. Kontratistari egozteko moduko gabezi edo eragozpenen ondorioz egindako lana bat ez badator kontratatutako prestazioarekin, GEOGARAPENek errefusatu egin dezake, eta ez du ordaindu beharrik izango, edo, hala dagokionean, ordaindutako prezioa berreskuratzeke eskubidea izango du.

Bermealdia, kontratua amaitzen den egunetik hasita urtebetekoa izango da.

Bermealdian zehar, egindako lanetan gabeziak ikusten badira, kontratazio organoak eskubidea izango du kontratistari haiek zuzen ditzan eskatzeko.

Baldin eta bermealdia amaitu eta GEOGARAPENek aurreko ataletan aipatutako eragozpen edo salaketarik azaldu ez badu, burututako prestazioaren gaineko erantzukizunetatik salbuetsirik geldituko da kontratista.

### **13. BETETZE AKASTUNAGATIKO ETA ATZERAPENAGATIKO ZIGORRAK**

Indarrean dagoen bitartean kontratua bete beharko du kontratistak, bereziki kontratuan ezarritako zerbitzuko ordutegiak eta egutegia.

Kontratistak berari egozteko modukoak diren arrazoiengatik ordutegia edo egutegia betetzen ez badu, edo kontratatutako zerbitzuak gaizki betetzen baditu, GEOGARAPENek aukera izango du bai kontratua bertan behera uzteko, bai kontratuari jarraipena emateko; kasu batean zein bestean, GEOGARAPENek 50 euroko kalte-ordaina jasoko du ordutegi edo egutegian emandako atzerapen orduko —zerbitzua behar bezala ematen ez denean, berriz, eragindako atzerapen orduen arabera ezarriko da kalte-ordaina—. Zigor horiek eragindako kalte-galerei ere metatuko zaizkie.

Hala ere, aipatutako zigorrak ez dira eskatu ahal izango atzerapena edo dena delakoa ezinbesteko arrazoiengatik gertatu bada, hala nola itsasoko egoera edo eguraldi zakarregatik. Horretarako, tartean ezinbesteko arrazoiak direnean, GEOGARAPENek eta kontratistak elkarrekin adostuko dute aipatutako jarduera bertan behera uztea.

Kontratuaren egikaritzearekin jarraitzea aukeratuz gero ere, GEOGARAPENek edozein unetan erabaki ahal izango du, kontratua betetzen ez den bitartean, kontratu hori lehen aipatutako ondorioekin bertan behera uztea.

Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial modura ordaindu beharreko diru-kopuruetatik beharrezko kenketak eginez kobratuko dira, betiere dagokion erreklamazioak eginez.

Dena den, kontratua bertan behera uztea nahiz kontratuarekin jarraitzea aukeratuta ere, GEOGARAPENek berak erabaki dezake zerbitzua, bere bitartekoak erabiliz edo hirugarrenen bitartez, egoki irizten dion adina luzatzea, jarraipenaren kostua kontratistaren kontura izanik, baina klausula honetan aurreikusitako kalte-galeren eta gainerako ondorioen kalte-ordainak baztertu gabe.

## **14. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK**

Kontratua ebazteko kausak SPKLTBko 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak izango dira, bertan, Administrazioari buruz egiten diren erreferentziak izan ezik, azken horiek elkarte kontratatzaileari buruzkoak izango baitira.

## **15. ELKARTEAREN ESKUMENAK**

Elkarte kontratatzaileari honako eskumenak dagozkie: kontratua interpretatzea, hura betetzeak sortarazten dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoia aldatzea, hura ebaztea adostea eta horren ondorioak zehaztea, mugen barruan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritako baldintzei eta ondorioei jarraiki.

## **II.-KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **16. ADJUDIKAZIO PROZEDURA ETA ERA**

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, Kontratazioko Barne araubideen III.2.4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez.

### **17. ESKAINTZAILEEN AHALMEN ETA KAUDIMEN BALDINTZAK**

Pertsona natural edo juridiko orok lizitazioan parte hartu ahal izango dute, eragiteko erabateko gaitasuna badaukate eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, profesional eta tekniko nahikoa egiaztatzen badute.

Lizitatzailerik, hein berean, gaitasun profesionala edo enpresariala exigigarria eduki beharko dute, jarduera burutzeko edo kontratuaren xedea eskaintzeko.

Lizitatzailerik kontratuaren objektua den jarduera gutxienez euskaraz eta gaztelaniaz eskaini beharko dute.

Ezingo dute inolaz ere Elkarte Publikoarekin kontratatu Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateginean ezarritako debeku inguruabarretako batean dauden pertsonak.

Nolanahi ere, GEOGARAPEN elkartearekin kontratatzeke gaitasuna edukiko dute, Espainiatik kanpokoak izanik, Europar Batasuneko kideak diren Estatuetakoko enpresek, kokatuta dauden Estatuako legeen arabera, dena delako zerbitzuak



eskaintzeko gaitasuna baldin badute. Horri dagokionez, SPKLTBko 58. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa hauek kokatuta dauden Estatuko legeek baimen berezia edo erakunde zehatz baten kide izatea exijitzen dutenean, dena delako zerbitzua eskaini ahal izateko, aipatutako baldintza betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

GEOGARAPENekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresari elkarteek, baina ez da beharrezkoa izango elkarte bat eskritura publikoan formalizatzea kontratua bere alde esleitu arte, SPKLTBren 59. artikuluan ezartzen dena aplikatuko delarik.

Aldi baterako enpresari elkarteko kide bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko du agiri honetan ezartzen denari jarraiki, aldi baterako elkartearen kaudimena kalkulatzeko kide guztien kaudimenen batuketa egiten delarik.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izateko, kontratuaren prestazioak pertsona juridikoei berezkoak zaizkien xede, helburu edo jarduera eremuen barruan egon beharko dira, beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Eskaintzaileek honako kaudimen tekniko eta profesionala dutela egiaztatu beharko dute:

- Azken hiru urteetako bakoitzean (2011, 2012 eta 2013) gutxienez 20 jarduera egin izana "outdoor" bisita gidatu turistikoen zerbitzuetako esparruan.

Kontratua gauzatzeraoan gutxienez honako giza baliabide eta baliabide materialen ekarpena egiteko konpromisoa hartu beharko da:

- Proposatutako bisitak egingo dituzten hiru gidari. Gidari hauek honako esperientzia izan beharko dute: gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatu beharko du bisita gidatu turistikoen zerbitzuetako esparruan edo gutxienez esparru honetan 50 aktibitate egin izana frogatu beharko dute.
- Itsasontzi bat, segurtasun handikoa eta bidaiarientzat eroso, gutxienez 35 lagunentzako tokiarekin.

## **18. PROPOSAMENAK, DOKUMENTUAK ETA AURKEZPEN EPEAK**

Kontratu honen espedientea, lizitazioko baldintzekin eta gainerako elementuekin, GOGARAPEN elkarteko egoitzan aztergai egongo da (Deba –Gipuzkoa (Turismo Bulegoa. Iifar kalea, 4) 9:30etatik 13:30etara, astelehenetik ostiralera, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, Plegua interesatuen eskura egongo da, GEOGARAPEN elkarteko kontratatzailearen profilean ([www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com)).

Aipatutako tokian eta ordutegian bertan, proposamenak aurkeztu ahal izango dira 20 eguneko epean, aipatutako deialdia Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunetik aurrera.

Proposamenak postaz bidali ahal izango dira ere. Kasu honetan, lizitatzailerak aipatutako epean egin eta bidalketaren ezarpen data justifikatu beharko du Correos bulegoan. Horrez gain, kontratazio organoari eskaintza igorri duela jakinarazi beharko dio telegrama edo fax bidez, egun horretan bertan. Ez badira bi baldintza horiek betetzen, ez da proposamena onartuko, kontratazio organoak ezarritako epez kanpo jasotzen badu. Hala ere, aipatutako dataren ondorengo hamar egun igaro eta gero, proposamena jaso gabe, hura ez da inolaz ere berriz onartuko.

Proposamenak sekretuak izango dira eta horiek aurkeztuz gero, lizitatzailerak Administrazio Klausulen Plegu honetan aurreikusitako eduki osoa onartu beharko du.

Euskera edo Gaztelania ez den beste hizkuntza batean aurkeztutako dokumentazioari, aipatutako bi hizkuntzetako batera itzulpen ofizila erantsi beharko zaio.

Aipatutako eskaerak adierazitako lekuan eta ordutegian entregatu beharko dira, "A", "B" eta "C. itxitako hiru gutun-azaletan. Horietan, zera idatziko da: "**EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEKO BISITA GIDATU GEOTURISTIKOEN ZERBITZUAK, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA**", eskaintzailearen edo ordezkatzaren duen pertsonaren –enpresa izanez gero-, identifikazioarekin eta sinadurarekin eta honako dokumentu hauek barne hartuta:

**A GUTUN-AZALAK "JARDUTEKO GAITASUNA"** izenburua eramango du eta honako dokumentuak jasoko ditu:

**a.a)** Eskaintzailearen izaera juridikoa eta bere kasuan, bere ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak.

Nortasuna horrela egiaztatuko da:

- Lizitatzailerak pertsona juridikoa balitz, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa edo aldaketa eskrituraren bidez. Espainiatik kanpokoa izanda, Europar Erkidegoko kideak diren Estatuko enpresaburuak direnean, nahikoa izango da erregistro profesional edo komertzial batean egindako inskripzioa egiaztatzea, dagokion Estatuko legeak aipatutako baldintzak exijitzen duenean.

- Lizitzailea banakako pertsona bat izango balitz, Nortasun Agiri Nazionalaren edo dagokion estatuko agiri baliokidearen bidez.
- Beste baten izenean agertzen edo proposamenak sinatzen dituztenek euren NAN kopia eta ondorio horretarako ahalorde askietsia aurkeztuko dituzte. Enpresa pertsona juridikoa izango balitz, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.
- Hainbat profesionalak edo enpresek proposamena Aldi Baterako Batasun moduan gauzatzen dutenean, euren nortasuna aurretik aipatu bezala egiaztatzeaz gain, horien ordezkari legalek sinatutako beste dokumentu bat aurkeztu beharko dute ere. Bertan, adierazi beharko da bakoitzak Enpresetako Aldi Baterako Batasunean duen partaidetza eta izendatu beharko da kontratua indarrean dagoen bitartean, Administrazioaren aurrean, horiek guztiak ordezkatzeko dituen pertsona.

Dokumentazio hori guztia jatorrizko alean eta behar bezala konpultsatutako kopian aurkeztuko da.

**a.b)** Kontratatzeko debekuan ez dagoela egiaztatzen duen berariazko erantzukizun aitortpena, SPKLTBko 60. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

**a.c)** Lizitzaileen kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren justifikazioa, hurrengo baliabideen baten edo bat baino gehiagoren bidez:

- Finantza entitateetako aitortpen egokiak.
- Merkataritza Erregistroan edo dagokion Erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak. Kontuak Erregistro ofizialetan nahita nahiez aurkeztu behar ez dituzten enpresaburuek, egiaztatzeako aukerako baliabide gisa, behar bezala legeztatutako kontabilitate liburuak aurkeztu ahal izango dituzte.
- Negozioen bolumen orokorrari buruzko aitortpena eta, hala dagokionean, kontratuaren xedeari dagokion jarduera esparruko negozioen bolumenari buruzkoa, gehienez, enpresaburuaren jarduera sortu edo ekin egindako dataren arabera azken hiru ekitaldi eskuragarri dagokienez, eskuragarri dauden aipatutako negozio bolumenari buruzko erreferentzien arabera.

**a.d)** Plegu honetako 17. klausulan eskatutako kaudimen profesionala eta teknikoaren egiaztagiria. Ondorengo alderdiak aurkeztu beharko dira:

- **Egindako lanak.**-“Outdoor” bisita gidatu turistikoen zerbitzuen esparruan azken hiru urteetan egindako **jarduera nagusien zerrenda** aurkeztu beharko da, urte bakoitzekoak zehaztuz (2011, 2012 eta 2013) eta zenbatekoak, datak eta hartzaileak barne hartuz.

Horretarako, eskaintzaileak beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartekoetan oinarritu daitezke, betiere kontratua burutzeko bitarteko horiek erabil ditzaketela frogatzen badute.

**-Lantaldea. 17. klausulan zehaztutako giza baliabide eta baliabide materialak kontratu honen gauzatzera adskribitzeko konpromisoa.**

Giza baliabideen ekarpenari dagokionez, gidari lanetarako proposatzen den pertsonaren identifikazioa, curriculuma eta titulazioa aurkeztu beharko dira, agiri honetako 17. klausulan adierazten diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko delarik.

Gainera, baliabide materialen ekarpenari dagokionez, kontratua gauzatzeko jarri beharreko itsasontziaren fitxa teknikoaren kopia bat aurkeztu beharko da, itsasontzia noizkoa den, matrikulazio datuak eta ezaugarriak adieraziz.

Konpromiso hau derrigorrezkoa izango da eta funtsezko kontratu izaera izango du SPKLTBren 223.f) artikuluan ezartzen denari dagozkion ondoretarako; beraz, ez bada betetzen kontratua bertan behera uzteko kausa izango da, GEOGARAPENen borondatearen menpe.

GEOGARAPENek beretzat gordetzen du komenigarriak iruditzen zaizkion egiaztapen lanak egiteko eskubidea edo beharrezko iruditzen zaion dokumentazio gehiago eskatzekoa, eskaintzaileek emandako informazioa egiaztatzeko helburuarekin.

**a.e)** Lizitatzzaileak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean izatearen justifikazioa. Horri dagokion erantzukizun aitorten batek azken hori ordezkatu ahal izango du, baina, horrelakoetan, egiaztagiria ekartzeko konpromisoa euren gain hartu beharko dute, gehienez bost eguneko epean, adjudikaziorako nahitaezko baldintza bilakatuko den datatik aurrera.

**a.f)** EJZ alta ematearen egiaztagiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta baita zerga honen azken ordainagiria ordaintzearena ere, hura nahita nahiez ordaindu behar izanez gero. Horrekin batera aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izana adierazten duen erantzukizun aitorten bat entregatuko da.

**a.g)** Orri bereizi batean, gutun-azalaren barruan ematen den dokumentazioaren zerrenda zenbakitua gehitu beharko da; gainera, telefono eta fax zenbakiak eta posta elektronikoaren helbidea adierazi beharko dira, baita jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bidea ere, betiere agiri honetako I. Eranskinean jasotako eredu jarraituz. Hori guztia era irakurgarrian egin beharko da.

Klausula honetan aipatutako dokumentazioa, "a.a", "a.c", "a.e" eta "a.f" letrekin identifikatuta, ordezkatu ahal izango da kontratista Euskal Autonomia Erkidegoko eta/edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Kontratisten Erregistroan izen ematearen Ziurtagiriarengatik.

Exijitutako dokumentazioa jatorrizko alean edo haren kopian aurkeztu ahal izango da. Elkarteak adjudikaziodunari jatorrizko dokumentuak aurkeztea exijitu ahal izango dio, kontratua sinatu baino lehen.

**B GUTUN-AZALAK "MEMORIA TEKNIKOA"** izenburua eramango du eta gutxienez, honako dokumentazioa jasoko du:

-Proposatutako bisita gidatu turistikoen eduki-proposamena.

-Eskaintzaileak kontratua burutzeko erabiliko lukeen lantaldea, ondoko alderdiei buruzko xehetasunak emanez: kideen titulazioa, esperientzia, curriculum eta hizkuntzen ezagutza. Egindako lanen zerrenda zehatza ere aurkeztu behar du eskaintzaileak, zein erakunderentzat egin dituen adieraziz.

-Kontratuaren prestazioak burutzeko erabiliko den metodologia.

-Eskaintzaileak kontratuko zerbitzua eskeiniko duen hizkuntzak, gutxienez euskaraz eta gazteleraz egin beharko du.

-Edukien ulermena eta bizipenaren gozamena eragiteko, bisitarien eskura jarriko diren edukien eta bitartekoen proposamena.

-Kontratuko aktibitateak egingo diren egunen egutegi proposamena,

-Eskaintzaileak Euskal Kostaldeko Geoparkearen inguruan, hau da, Mutriku, Deba edo Zumaiako udalerrietan, dituen lokal edo aretoen adierazpena.

-Kontratuko zerbitzuak emateko eskaintzaileak dituen kalitate ziurtagiriak, edo kalitatezko kudeaketa prozesuetan parte hartu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak.

-Hobekuntzak. Eskaintzaileak proposatzen dituen hobekuntzak adieraziko dira, eskainiko duen zerbitzuaren eta Geoparkearen proiektuari egingo dizkion ekarpenen inguruan. Baloratuko dena da zehazki, taldeak erakartzeko gaitasuna, bisitak beste hizkuntzatan gauzatzeko gaitasuna eta beste hobekuntza batzuk.

**C GUTUNAZALAK, “PROPOSAMEN EKONOMIKOA”** tituluduna, proposamen ekonomikoa bakarrik hartuko du barne, eskaintzailearen edo ordezkatzan duen pertsonaren identifikazioarekin eta sinadurarekin, eta hurrengo ereduaren arabera izango da:

Eskaintzailearen dokumentu bat eduki beharko du, literalki honako eredu hau jarraituz.

“..... jaun/andreak, ..... helbidean bizi dena eta ..... NAN zenbakia duena, bere izenean, edo ..... ordezkatzuz (..... helbidea eta ..... NAN edo IFK zenbakia ditu), jarduteko gaitasun juridiko osoa izanik, eta, **EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAN BISITA GEOTURISTIKOEN ZERBITZUA** prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO ELKARTEAK (GEOGARAPENek) onartutako pleguak ezagututa., honakoa

#### ADIERAZTEN DUT

- 1.) Administrazio Klausulei buruzko aipatutako Plegua ezagutzen dudala, eta baita dagokion dokumentazioa ere. Hori guztia espresuki hartzen dut neure gain eta onartzen dut.
- 2.) Betetzen ditut (edo ordezkatzan dudana pertsonak edo entitateak betetzen ditu) indarreko araudiak exijitutako baldintza eta obligazio guztiak eta kontratua betetzeko aipatutako Administrazio Klausulen Plegua.
- 3.) Neure gain hartzen dut Euskal Kostaldeko Geoparkean gidatutako bisita gidatu geoturistikoen zerbitzuak eskaintzeko konpromisoa, hurrengo aleko prezioen arabera:

A) Egiten diren aktibitateen unitate-prezioa (BEZ kanpo),

	<b>BISITA MOTA</b>	<b>Bisita bakarra</b>	<b>Beste bisita bati lotuta</b>
1	Zumaia-Deba-Zumaia itsas irteera	..... €	
2	Zumaia-Deba-Zumaia bigarren itsasontzia		..... €
3	Algorri interpretazio zentroa eta oinezko bisita Algorri puntara		..... €
4	Bisita geologikoa eta itsas irteera Zumaian	..... €	

5	Bisita geologikoa itsasontzi gabe Zumaian		..... €
6	Itsas irteera Zumaian bisita geologikorik gabe		..... €
7	Flysch-aren ibilibidea	..... €	..... €
8	Flysch beltza: Nautilus eta itsas irteera Saturrarana	..... €	..... €
9	Mutriku eta Arrantza ( Bentalekua eta itsas irteera)	..... €	..... €
10	Olatzeko Karsta	..... €	
11	Artzai Txikiak Lasturren	..... €	
12	Biodibertsitatea Marearteko Zabalgunean.	..... €	

B) Egiten ez diren aktibitateen unitate-prezioa (BEZ kanpo), kontratatutako aktibitate hauek kontratistari ez dagozkion arrazoiengatik aurrera eraman ezin direnean:

- Itsasontziarekin egindakoak: .....€
- Itsasontzirik gabekoak: ..... €

4.) Nolanahi ere, lan eta fiskalitate alorreko lege eta arau guztiak nahita nahiez beteko ditut.

\_\_\_\_\_ en, 2013ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_ an.

“SINADURA”

## 19. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, GEOGARAPEN elkarteko Kontratazioaren Barneko Jarraibideen B.III.2.4 f) atalean aurreikusitako eta GEOGARAPEN elkarteko eta Zumaia, Deba eta Mutrikuko Turismo Bulegoetako langile teknikoek eraturako Batzordeak A Gutun-azaleko dokumentazioa (“JARDUTEKO GAITASUNA”) aztertuko du eta, proposamenaren batean, zuzendu daitezkeen akats materialak edo itxurakoak ikusiko balitu, gehienez hiru eguneko epea emango du lizitatzailleak horiek zuzendu ditzan. Batzordeak aldi baterako baztertuko ditu zuzendu ez daitezkeen akatsak dituzten proposamenak.

Batzordeak proposamenak irekiko ditu lizitazio iragarkian adierazten diren lekuan eta orduan.



Egintza horretan B gutun-azala irekiko dira, egintza publikoan (eskaintza teknikoa), onartzen diren kontratu eskaintzei buruzkoa.

Bai hasierako deialdi honen mantenua eta bai egin daitezkeen aldaketak kontatzailearen profilararen bidez jakinaraziko dira ([www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com)), egokia deritzon jakinarazpenerako beste edozein bide alde batera utzi gabe.

Bigarren gutun-azalean bildutako atalei buruzko eskaintza baloratu ondoren, Batzordeak, egintza publikoan ere, eskaintzen C gutun-azala irekiko du (eskaintza ekonomikoa). Hein berean, egintza honetarako deialdia kontratatzailearen profilean argitaratuko da ([www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com)), egokitzat deritzon beste edozein bide alde batera utzi gabe.

SPKLTBeko 150.2. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eskaintza ekonomikoa egintza publikoan irekiko da ("C" gutun-azala), alderdi teknikoen balorazioaren emaitza ezagutu ondoren ("B" gutun-azala).

Batzordeak, proposamenak Plegu honetan aurreikusitako adjudikazio irizpide guztien arabera baloratu ondoren, ahaldunari adjudikazio proposamenaren berri emango dio edo lehiaketa hutsik aitortuko du, Elkartearen kontratazio organo gisa.

Aurreko atalen arabera burututako guztia dagokion Aktan adieraziko da eta bertan lehiaketaren emaitza eta bere intzidentziak islatuko dira.

## **20. ESLEIPEN PROPOSAMENA eta ESLEIPENA**

Bere adjudikazio proposamena egin aurretik, Batzordeak lizitatzaileri eskatu ahal izango dizkie egoki deritzon eta kontratuaren xedearekin lotutako txosten teknikoak edo euren proposamenen edukiari buruzko azalpenak. Azalpen hauek ezingo dute, inolaz ere, proposamenen edukia aldatu.

Batzordeak aurkeztutako proposamenak goranzko hurrenkeraren arabera sailkatuko ditu. Aipatutako sailkapena antolatzeko, pleguan aipatutako adjudikazio irizpideak kontuan hartuko ditu. Horretarako, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Batzordeak ekonomikoki eskaintza onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileari eskatuko dio, ekar ditzala, eskaera egiten zaion egunaren biharamunetik hamar laneguneko epean, honako dokumentu hauek:

- Zergabidezko eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharren betekizunean egunean egotearen egiaztagiria.
- Agiri honetako 25. klausulan araututako aseguru kontratuaren kopia.



Eskatutakoa behar bezala betetzen ez bada adierazitako epean, eskaintzaileak eskaintza bertan behera utzi duela pentsatuko da, eta, kasu horretan, eskaintzen sailkapeneko hurrengo eskaintzaileari eskatuko zaizkio aipatutako dokumentuak.

Kontratazio organoak, aipatutako dokumentuak jaso eta hurrengo bost lanegunen barruan erabakiko du kontratuaren esleipena, eta proposamenak irekitzen diren egunetik bi hilabeteko epean gehienez ere.

Kontratazio organoak ebazpen arrazoituaren bidez erabakiko du esleipena eta eskaintzaileei euren proposamenetan hobetsi dituzten bitartekoak erabiliz jakinaraziko zaie; aldi berean, kontratistaren profilean ere argitaratuko da.

## 21. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Kontratazio organoak kontratua adjudikatuko du hurrengo irizpide objektiboak kontuan hartuta, garrantziaren beheranzko hurrenkeraren arabera eta dagokion puntuazioarekin:

### A) MEMORIA TEKNIKO (gehienez 65 puntu )

A). Eskaintzaileak kontratua burutzeko erabiliko lukeen lantaldea, ondoko alderdiei buruzko xehetasunak emanez: kideen titulazioa, esperientzia, curriculum eta hizkuntzen ezagutza. Egindako lanen zerrenda zehatza ere aurkeztu behar du eskaintzaileak, zein erakunderentzat egin dituen adieraziz, **gehienez 12 puntu.**

B). Kontratuko lanak gauzatzeko metodologia, **gehienez 10 puntu.**

C). Proposatzen diren bisita gidatuetan, edukien ulermena eta bizipenaren gozamena eragiteko, bisitarien eskura jarriko diren edukien eta bitartekoen proposamena, **gehienez 8 puntu.**

D). Hobekuntzak: Eskaintzaileak proposatzen dituen hobekuntzak adieraziko dira, eskainiko duen zertitzuaren eta Geoparkearen proiektuari egingo dizkion ekarpenen inguruan, baloratuko da:

- .....taldeak erakartzeko gaitasuna, **gehienez 7 puntu.**
- .....beste hizkuntzetan bisita gidatuak egiteko gaitasuna, **gehienez 6 puntu**
- .....beste hobekuntzak, **gehienez 4 puntu.**

E). Proposatutako bisita gidatuen eduki proposamena, **gehienez 7 puntu.**

F). Kontratuko aktibitateen egutegia, **gehienez 5 puntu.**

G) Eskaintzaileak Euskal Kostaldeko Geoparkearen inguruan, hau da, Mutriku, Deba edo Zumaiako udalerrietan, dituen lokal edo aretoen adierazpena. **Gehienez 3puntu. .**

H). Kontratuko zerbitzuak emateko eskaintzaileak dituen kalitate ziurtagiriak, edo kalitatezko kudeaketa prozesuetan parte hartu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak., **gehienez 3 puntu.**

B) ESKAINTZA EKONOMIKOA (gehienez 35 puntu)

Egindako aktibitateko prezioa, **gehienez 35 puntu.**

Egin gabeko aktibitateko prezioa, **gehienez 5 puntu.**

## 22. KONTRATUA PERFEZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua bere formalizazioaren bitartez perfektionatuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, gehienez ere eskaintzaileek eta esleipendunak jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost lanegunen barruan.

Halere, esleipendunak kontratua eskritura publiko egitea eskatu ahal izango du. Kasu horretan, formalizazio gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

Kontratistari egozteko moduko arrazoiengatik kontratua aipatutako epearen barruan formalizatu ez bada, GEOGARAPENek dagozkion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du.

Kasu horretan, GEOGARAPENek hurrengo eskaintzaileari eskatu ahal izango dio agiri honetako 21. klausulan eskatutako dokumentazioa, eta hamar laneguneko epea emango dio agiriak horiek aurkezteko.

## 23. KONTRATUA BETETZEA

- Kontratua kontratistaren ardurapean burutuko da.
- Kontratuko zerbitzuak honako hauen arabera burutuko dira zehatz-mehatz: Plegu honen xedapenak, kontratatutako zerbitzuen izaeraren berezko arau teknikoak, eta, kontratuaren interpretazio teknikoan,

GEOGARAPEN elkarteko kontratistak emango lituzkeen jarraibideen arabera.

- Kontratistak kontratuaren xedeko zerbitzua eskaintzeko baliabide nahikoak eduki beharko ditu euskaraz eta gazteleraz.
- Kontratistak bisitariei hornitutako informazioaren edukia zuzendu beharko du, Euskal Kostaldeko Geoparkearen Zuzendari Zientifikoak eskatuta edo, hala dagokionean, berak izendatutako pertsonak eskatuta.
- Enpresaburuak lan alorreko, Gizarte Segurantzako eta Laneko Segurtasun eta Higiene alorreko indarreko xedapenak nahita nahiez bete behar ditu. Horri dagokionez, enpresaburuak ez baditu obligazio horiek betetzen, GEOGARAPEN elkarteak ez du horren erantzukizunik bere gain hartuko, eta baita kontratua exekutatzen den bitartean ateratzen diren legeak ere. Ondorio horretarako, langileei aipatutako esparruan beharrezkoak liratekeen prestakuntza ikastaroak eman beharko dizkie.

Kontratista, hein berean, arduratuko da langileek, segurtasun, higiene eta lan osasun alorreko indarreko araudia, eta Kontratazio Organotik eragin daitekeen funtzionamendu araudi orokorra betearazteaz.

Langile guztiak kontratistaren menpe egongo dira, eta azken horrek enpresaburuaren bere izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak bere gain izango ditu. Horri dagokionez, ezingo zaio GEOGARAPEN elkarteari aipatutako lan harremanetatik edo gainontzeko betebeharretatik eratorritako erreklamaziorik egin.

- Enpresa adjudikaziodunak izaera pertsonaleko datuak erabiliko ditu, automatizatutako tratamenduan, kontratua bete ahal izateko. Horiek Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta haren garapen araudiaren arabera erabiliko dira.
- Enpresa adjudikaziodunak ezingo du izaera pertsonaleko automatizatutako daturik aplikatu edo erabili, kontratua dela eta, haren xedea ez den beste batekin lortzen baditu, ezta beste pertsoneri utzi edo kontserbatu ere.
- Kontratua guztiz bete ondoren, tratatutako izaera pertsonaleko datuak GEOGARAPEN elkarteari entregatu beharko zaizkio. Enpresa adjudikaziodunak bereak suntsitu beharko ditu, GEOGARAPEN elkarteak idatzizko baimena eman izan ezik, eskaini daitezkeen hurrengo zerbitzuetarako. Horrelakoetan, aipatutako datuak gorde ahal

izango dira, behar bezalako segurtasun baldintzekin, bost urteko aldi batez.

## 24. KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK

Honako hauek izango dira kontratistaren obligazioak:

- Kontratuko klausuletan nahiz pleguan ezarritakoa eta kontratazio organoak eman diezazkiokeen aginduak zorrotz betetzea.
- Programaren kudeaketaren arduradun baten izendapena, adjudikaziodunaren eta GEOGARAPEN elkartearen arteko bitartekari lana egingo duena . Pertsona hau eskaintzaileak pleguaren 17. klausulan gida gisa aurkezten duen pertsona bera izan ahal da.
- Bere eskaintzan agindutako giza baliabideak eta tresnak bideratzea kontratua betetzeko zereginetara.
- Bere jarduerarako beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak eskuratzea.
- Kontratuko arduradunaren eta GEOGARAPENeko langileen aginduak betetzea eta kontratuko lanak arduradunarekin batera burutzea, arduradun horri duen informazio guztiaren berri emanez.
- Kontratuko xedea betetzean sor daitezkeen gastu guztiak ordaintzea, zerga gastu, tasa eta kargak barne, indarrean dauden xedapenen arabera.
- Kontratututako zerbitzuan erabiliko dituen langileei dagokienez, lan arloan eta Gizarte Segurantza gaietan indarrean dauden xedapenak betetzea.
- Agiri honetako 25. klausulan adierazitako aseguru-poliza egin eta mantentzea.
- Konfidentziasuna gordetzea, agiri honetako 26. klausularen arabera.
- Gaiaren kariaz aplikatu behar diren sektoreko arau guztiak betetzea.
- Grebarik izanez gero, zerbitzuak betetzea. Zerbitzu horiek bermatzen ez badira, GEOGARAPENek ahalmena izango luke zerbitzuak bete ahal izateko behar diren kontratuak sustatzeko, kontratistaren fakturari kontratu horien zenbatekoa gutxituz.

- Langileak ordezkatzera, egiten duten lana eta lanaren iraupena edozein delarik ere, baldin eta beren eginkizunak arretaz eta eraginkortasunez beteko ez balituzte, lanerako gaitasunik ez balute, beren jardueretan arduragabeak izango balira edo kontratuaren bilakaera onerako kaltegarriak liratekeen ekintzak egingo balituzte. GEOGARAPENek ordezkapen-eskaera egiten dionetik, gehienez ere hogeita lau orduko epea izango du horretarako. Langile ordezkapenek ez dute inolako erantzukizunik ekarriko GEOGARAPENentzat, kontratistaren eta ordezkaturako langileen arteko harremani dagokienean.
- Gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarren ondorioz langileek lanera joaterik ez dutenean, horien ordezko langileak jartzea, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean emango direla bermatuz. Hogeita lau orduko epea izango du, gehienez ere, horretarako.
- Geoparkeak giden egiaztatzea burutzeko antolatzen dituen formazio kursoetan parte hartzea, ez diolarik kosturik suposatuko adjudikaziodunari.
- Geoparkearekin batera elkarlanean bisiten diskurtsoa definitzen eta erredaktatzen lagundu eta Geoparkeak onartzen dituenean asumitu eta praktikan jarri.

Klausula honetan aurreikusitako obligazioak kontratuko nahitaezko obligazio izango dira SPKLTB legearen 223.f) artikuluan aurreikusitako xedeetarako, eta, beraz, obligazio horiek ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekarriko du.

## **25. ASEGURUAK**

Kontratuaren esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik eta agiri honetako 25. klausulan ezarritakoaren arabera, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat aurkeztu beharko du, kontratuaren egikaritzetik sortutako kalte pertsonal eta/edo materialen kalte-ordainak, bai hirugarrenen aurrean, bai GEOGARAPENen aurrean, beteko dituen; aseguruaren gutxienezko kopurua 300.000 eurokoa izango da eta indarrean egon beharko du kontratuak irauten duen bitartean.

Kontratistak polizaren prima ordaindu izana egiaztatu behar du, eta kontratatutako polizaren ordainketetan egunean dagoenaren egiaztagiria aurkeztu behar ditu GEOGARAPENen aurrean.

## **26. KONFIDENTZIALTASUNA**

Kontratistak errespetatu egin beharko du kontratuaren egikaritzea dela-eta eskuratzen duen informazioaren izaera konfidentziala, kontratuan edo agirian halako

izaera eman bazaie, edo berezko izaeraren ondorioz era horretako tratamendua jaso behar badute.

Agiri honetan esleipenaren publizitateari eta eskaintzaileei eman beharreko informazioari buruz xedatutakoa alde batera utzirik, kontratazio organoak ez du zabaltzerik izango eskaintzaileek eman eta konfidentziazat izendatutako informaziorik; sekretu teknikoei eta merkataritza arlokoiei dagokienean, batik bat. Konfidentziazat hartuko dira, bereziki, kontratuaren egikaritzea dela-eta kontratistari edozein euskarritan emango zaizkion informazioak, dokumentuak, artxiboak edo zehazpenak, eta debekatuta dago horiek argitaratu edo zabaltzea.

Konfidentzialtasun betebeharrak ez du denbora mugarik; behin betiko bete behar da.

## **27. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahalko du. Berea izango da kontratua betetzen den gainbegiratzeko ardura, eta itundutako prestazioa behar bezala gauza dadin berrmatze aldera beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu. Kontratuaren arduraduna, GEOGARAPENi lotutako zein GEOGARAPENekin zerikusirik ez duen pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke.

## **28. KONTRATUA HIRUGARRENEI LAGATZEA. AZPI KONTRATATUTAKOAK.**


Kontratutik eratorritako eskubideak eta obligazioak hirugarren bati laga ahal izateko, GEOGARAPEN elkarteak aurretik horretarako berriazko eta idatzizko baimena eman beharko du eta baldin eta emakidadunak betetzen baditu GEOGARAPEN elkartearekin kontratatzeke Plegu honetan eskatutako baldintza legalak, kontratatzeke debekuan ez badago eta bere gain Plegu honetan aurreikusitako baliabideetara nahita nahiez atxikitzeke zeregina betetzeko konpromisoa hartzen badu. Hori guztia, lagatzeko zerbitzuari edo zerbitzuei dagokienez.

Kontratuaren prestazioak azpi kontratatu ahal izateko aurretik GEOGARAPEN elkarteak horretarako berriazko eta idatzizko baimena eman beharko du eta baldin eta azpi kontratistak betetzen baditu GEOGARAPEN elkartearekin kontratatzeke Plegu honetan exijitutako baldintza legal guztiak, ez badago kontratatzeke debekuan eta bere gain Plegu honetan aurreikusitako baliabideetara nahita nahiez atxikitzeke zeregina konpromisoa hartzen badu. Hori guztia, azpi kontratatzeke zerbitzuari edo zerbitzuei dagokienez.

Horrez gain, lizitatzailleek euren eskaintzetan kontratua exekutatzeko aurreikusten dituzten azpi kontratuak aurkeztu beharko dituzte. Horrelakoetan, Klausula honen aurreko paragrafoan ezarritakoa bete beharko du.

Deban, 2013ko Abenduak 18an.

Sinatuta:  
Leire Barriuso Astigarraga



## I. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOAREN IZENDAPENA

..... jaun/andreak, ..... helbidean bizi dena eta ..... NAN zenbakia duena, bere izenean, edo ..... ordezkatuz(..... helbidea eta ..... NAN edo IFK zenbakia ditu), jarduteko gaitasun juridiko osoa izanik, eta, iragarritako prozedura irekiaren bitartez, Mutrikuko, Debako eta Zumaiako flyschean bisitaldi geoturistiko gidatuen zerbitzuak kontratatzeke lizitazioa zuzenduko duen Klausula Ekonomiko-Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Agiriaren berri jakinik, honako idatzi honen bidez, EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN KUDEAKETARAKO ELKARTEAK (GEOGARAPENek) lizitazio honen kariatz egin beharko duen edozein jakinarazpen jasotzeko lehentasunezko bitartekotzat izendatzen du honako hau (\*):

- Faxe.
- Posta elektronikoa.
- Posta ziurtatua.

(\*) Adierazi izendatutako bitartekoa.

Nolanahi ere, jakinarazpenetarako, honako datu hauek ere adierazten ditu:

-Fax zenbakia: .....

-Helbide elektronikoa: .....

-Posta helbidea: .....

-Harremanetarako telefonoa/k: .....

[Oharra: Jakinarazpenak azkarrago helarazteko, eskaintzailearen faxa lehentasunezko bitartekotzat izendatzea gomendatzen da, jakinarazpenen ondorioetarako guztiz balioduna izango baita, eskaintzaileak berak adierazitako bitartekoa delako. Hala ere, onartzen da lehentasunezko beste bitartekoren bat izendatzea. Izendapenik egiten ez bada, jakinarazpenak aipatutako helbidera bidaliko dira posta ziurtatuaren bitartez.]

..... (e)n, 2013 ko..... aren .....a.

Sinadura:.....

## **II ERANSKINA:**

### **ZUMAIA – DEBA –ZUMAIA ITSAS IRTEERA**

Bataz besteko iraupena: 1.30h

Zumaia, Deba, Zumaia.

Zumaia eta Debako Flyscha ezagutzeko itsas irteera.

### **ZUMAIA-DEBA-ZUMAIA BIGARREN ITSASONTZIA**

Bataz besteko iraupean: 1.30h

Zumaia, Deba, Zumaia.

Zumaia eta Debako Flyscha ezagutzeko itsas irteera.

Lehen itsasontziaren ondoren irteten duten beste itsasontziak, ibilbide eta eduki bera.

### **ALGORRI, INTERPRETAZIO ZENTROA ETA OINEZKO BISITA ALGORRI PUNTARA**

Bataz besteko iraupena: 1.30h

Zumaia

Algorri zentrora bisita gidatua eta Algorri puntara ibilbidea.

Zumaia-Deba-Zumaia itsas irteeraren Plan B

### **BISITA GEOLOGIKOA ETA ITSAS IRTEERA**

Bataz besteko iraupena: 3.30h

Zumaia.

Algorri zentrora bisita, Algorri puntara ibilbidea eta itsas irteera.

### **BISITA GEOLOGIKOA ( itsasontzi gabe)**

Bataz besteko iraupena: 2.30h

Zumaia

Algorri zenrora bisita eta Algorri puntara ibilbidea.

### **ITSAS IRTEERA (bisita geologikorik gabe)**

Bataz besteko iraupena: 45 min

Zumaia

Zumaiaitik Algorri puntara itsasontzian irteera.

### **FLYSCH-AREN IBILBIDEA**

Bataz besteko iraupean: 3.00h

Mutriku, Deba eta Zumaia

Irteerak Zumaiaitik.



Irteera itsasontzian Zumaia-Mutriku-Zumaia  
Ordu beteko aisialdi denbora Mutrikun.

### **FLYSCH BELTZA: NAUTILUS ETA ITSAS IRTEERA SATURRARANERA**

Bataz besteko iraupena: 2.30h  
Mutriku.  
Nautilusera bisita.  
Saturraranera itsas irteera  
Flysch-aren ibilbideak irteeraren baldintzapean egon daiteke bisita honen prezioa.

### **MUTRIKU ETA ARRANTZA**

Bataz besteko iraupena: 2.30h  
Mutriku  
Mutrikuko alde zaharrari bisita  
Bentalekura bisita  
Saturraranera itsas irteera  
Flysch-aren ibilbideak irteeraren baldintzapean egon daieke bisita hau.

### **OLATZEKO KARSTA**

Bataz besteko irupena: 2.00h  
Olatz Auzoa ( Mutriku)  
Karstaren ikus entzunezkoa  
Goinetxeko gaztandegira bisita

### **ARTZAIN TXIKIAK**

Bataz besteko iraupena: 3.30h  
Lastur Auzoa ( Deba)  
Errotak, Taloa eta Telak egiteko aukera Goikolan.

### **MAREARTEKO ZABALGUNEA ALGORRI edo SAKONETA**

Bataz besteko iraupen: 3.00h  
Zumaian Algorri edo Deban Sakoneta

**OHARRA: BISITA HAUETAN PARTE HARTU DEZAKEEN BISITARI KOPURUA MUGATUA BADA, JAKINARAZI ZUEN PROPOSAMENEAN.**